

Literatura

Ozenki irakurtzeko liburua

Franck Dolosor (Donibane Lohizune, 1977) kazetaria da hitzaren zentzurik beteenean. Hau da, jakin-mina eta curiositatea ditu ardatz, erreferentzia ugari, jendearekin egotea eta mintzatzea gustatzen zaio, badaki galdetzen eta entzuten... eta, badaezpada, koaderno eta boligrafoa beti eskueran erabiltzen ditu.

ELIXABETE GARMENDIA

HEGOALDEKOOK ETBko albistegietatik ezagutzen dugu batez ere; Baionako korrespontsaliatik, urtetan aritu da bi kateetan, ETB 1en lapurtar aireko euskararekin eta ETB 2n, frantses bernizdun gaztelaniaz. Aspaldian hortik kanpora ibili da, baina azaroan itzuliko da berriro.

Hogei urte betetzerako hasi zen kazetaritzan, eta pasatu ditu telebistaz gain, Gure Irratia, Radio Euskadi eta France Blue Pays Basque irratia, eta kolaboratzaile izan da *Tipi-Tupa* aldizkarian.

Azkenaldian Senpere eta Bilboren artean bizi da, oin bat han, bestea hemen, horrek ematen duen ikuspegi bikoitz eta osagarriarekin. Eta bi leku horietan arituz burutu du *Senperetik Senpererat, begirada bat XX. mendeari* liburua.

Liburua, etxetik, familiatik sortutako proiektu baten gauzatzea da. “Istorio franko jakin dut aitatziren ahotik, baina ez naiz sekulan menturatu elkarrizketazera. Haren lekukotasun zuzenik ez da beraz, liburuan, baina bere oroitzapenak leku handia du horko orrietan”. Horregatik, izen-abizenek aitatziren izengoitia –Haltza– gehitu die liburua sinatzerakoan.

2008ko udan egin zituen harremanak Senpereko hamazortzi lagunekin, adinekoak denak. Horietatik hiru familiakoak –amatxi tartean–, eta gainerakoak, ezagunak batzuk “eta bertze batzuk arrunt ezezagunak ziren berriki arte. Senpere biziki zabala da, auzo anitzetan sakabanatua, 18 kilometro punta batetik bertzerat eta 11 herrik inguratzen gaituzte. Horrek aberastasuna ematen dio herriari eta denbora berean harreman guti izatea batzuetan, konparazione gazteak eta adineko jendeen artean”.

Eta hain zuzen ere, gazteen eta adinekoen arteko zubia eraikitzea zuen helburu Dolosorrek, aitaxi-amatxiak bizi izandako mundua bilobei transmititzea. Horretarako, galdetu die adine-

**Senperetik Senpererat
liburua etxetik, familiatik
sortutako proiektu baten
gauzatzea da: aitaxiri
entzundako istorioetatik
abiatuta hasi zen Dolosor
herriko testigantzak biltzen**

koei lanaz –gauekoa barne, kontrabandoko herria izan baita Senpere–, jan-edanaz, osasuna zaintzeko erremedioez, ospakizunez, gerlez –bi Mundu Gerrak, Espainiakoa, Aljeriakoa, Indotxinakoa–... eta atera zaio eguneroko bizitzaren historia, joan den mendeko Senperen.

Badu proiektu osoak zerbait etnografiatik eta antropologiatik. Hizkuntza aldetik berriz, Senpereko hizkeraren ekarpena egiten du. “Lekuko-

en solasak erranak izan diren bezala idatzi ditut. Ahoz kotasunari eman diot garrantzia”. Horregatik, egileak gomendatzen du “lekukotasunak ozenki irakurtzea, gisa horretan irakurleak entzun ahal izanen baitu jende xaharrek duten modua eta musika mintzatzen direlarik”. Baina Dolosor ez da ez etnografoa, ez antropologoa ezta hizkuntzalaria ere, eta liburua taxutzerakoan kazetariaren sena eta eskua ageri dira,

testuen antolaketan ez ezik, argazki ugari osatzen duten alderdi grafikoan.

Laurogeiren bat lagun bildu ziren Senperen, liburuaren aurkezpena. “Sekulan elkartzen ez den jendea gainerat, giroa arraroa bezain polita zen”. Kontua da liburuak bidea hasi besterik ez duela egin. “Ohartu dira ahozko ondareak zoin garrantzia duen. Gure historiak, gure mintzaira... Orain jendea etxerat etortzen zait edo telefonoz deitzen naute, argazkiak, bertsuak eta agiri historikoak emateko”.

“Nostalgariak gabe” idatzi du Dolosorrek, iragana goraiatzeko asmorik ez. Ez du jasotako guztia kaleratu, nonahi bezala, Senperen ere bai baitira pasarte mingarriak, itxi gabeko zauri oraindik. “Bistan da ezin izan dudala dena idatzi. Historia berria da oraino eta oroitzapen guziak ezin dira argitaratu paperean. Baina niretzat biziki baliagarriak dira, gogoetak egiteko baliatzen ditut”.

Kazetariak badaki batzuetan isilik egoten ere jakin behar dela. ■

F. DOLOSORREK UTZIA

